



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER


Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO



Indar eta Atsegin

3 UNITATE
DIDAKTIKOA

IPUINA
TESTU LUZEA


Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3



Behin, bazen udaberriko egun eguzkitsu
bat Berdinlanden.




Indar goiz irten zen bere etxetik egun
horretan.



Eguraldi ona egiten zuen. Patinetea hartu eta
irrifarrez eskolarantz abiatu zen. Indar neska
kementsu eta adoretsua zen.



Kalean ibiltzea gustatzen zitzaion. Eta parkean,
eta mendian eta hondartzan...



Plazara sartzeko errepidea zeharkatu behar
zuen.



Zebrabidean geratu zen.






Udaltzainak autoak gelditu eta paso eman zientean, aurrera egin zuen.

- Agur Indar! -esan zion udaltzainak.
- Agur ama! Goiz ona izan! -erantzun zion Indarrek.

Atsegin plazan zegoen Indarren zain,
elkarrekin joateko eskolara. Goiz zen. Eskolara
nondik joan pentsatzen ari zen. Gehienetan
Barrenkaletik joaten ziren.






Berari kaletik joatea gustatzen zitzaion. Dendari gehienak ezagutzen zituen eta jendea agurtzea gustatzen zitzaion. Agurtu eta hitz egin, eta kontuak esan eta barre egin...

- Agur Atsegin! -esan zion postariak.
- Agur! Goiz ona izan! -erantzun zion Atseginek bizilagunari.

Eguraldi ona egiten zuen. Bazekien Indarrek
parketik joatea nahiagoko zuela. Hain zen
naturazalea! Atseginek egun horretan, opa-
ritxo hori egin nahi zion bere lagunari.



Indar iritsi zenean, horrela esan zion Atseginek:

- Egun on! Denboraz gabiltza. Parketik joango al gara?
- BAI! Zein ongi! -erantzun zion Indarrek.



Esan eta egin. Parketik joan ziren. Biak poz pozik.

- Halako parkea izango bagenu eskolan... zuhaitzak, loreak, txoriak... Zoragarria izango litzateke! -esan zion Indarrek.
- Agian eduki dezakegu -erantzun zion Atseginek-. Jolaslekuaren ondoan dagoen zelaia prestatuko bagenu...

Eta biak berriketan jarraitu zuten. Isildu gabe joan ziren eskolaraino.





Indar eta Atsegin barrez eta algaraz iritsi ziren eskolara. Lagunekin elkartu zirenean Indarrek horrela esan zien guztiei:

- Plan bat daukagu!
- Nola? Zein? Zein? -galdetu zioten.
- Aaa... Sorpresa! Gaur, jolas orduan, denok jolaslekuaren ondoko zelaian elkartuko gara. Ados? Gero arte. Goiz ona izan! -erantzun zien Atseginek.

Lagunek ondo ezagutzen zituzten Indar eta
Atsegin. Joateak mereziko zuela ziur zeuden.
Horregatik, beraien kanta abestu zieten:

♪♪ Indartsu ta kementsu / da neska benetan,
trebea eta abila / mutila hitzetan,
taldea osatzen dute / biak proiektutan,
adore eta ideiak / uztartuz lanetan. ♪♪





Jolasorduan lagun taldea Atseginek esandako zelaian bildu zen. Neguan ez zieten uzten horra joaten, baina eguraldi ona hasten zenean bai, jolasteko beste leku bat zen.

- Kaixo lagunak, Atsegin eta biok ideia bat izan dugu -hasi zen Indar.
- Zelai hau parke bilakatzea! Zer iruditzen zaizue? -esan zien Atseginek.


Beste guztiak mutu geratu ziren. Zelai zikin hura parke bilakatzea? Beraiek? Elkarri begira eta zer esan jakin gabe geratu ziren.

- Ez da hain zaila! Dena garbitu eta txukundu. Loreak eta aulkiak ipini. Bideak egin eta kito! Gure parkea izango da, bertan egoteko, jolasteko, hitz egiteko, itzala izateko, naturan egoteko, festak egiteko... zer iruditzen zaizue? Ez duzue halako leku bat edukitzerik nahi? Egin dezakegu!



- Baina hori lan asko da... -esan zuen batek.
- Batentzat bai, baina denon artean egin dezakegu -erantzun zion Atseginak.
- Guk bakarrik? -galdetu zuen beste batek.
- Zergatik ez? Handiak gara jadanik, egin dezakegu! -esan zuen Indarrek.
- Bai, bai, egia da! Egin dezakegu! -esan zuten gehienak.
- Utziko al digute? -galdetu zuen beste batek.
- Konbentzituko ditugu -esan zuen Atseginak.





Esan eta egin. Eskolara itzuli zirenean bere tutoreari esan zioten. Hau harrituta geratu zen hasieran, baina entzun egin zituen eta dena ondo pentsatuta zutela ikusi zuen.

- Guztion onerako izango litzateke -bukatu zuen Atseginek.
- Dena den, zuzendariarekin hitz egin beharko dut eta ez du nahi izango -esan zien maisuak.
- Zergatik ez? -galdetu zion Indarrek.
- Gu joan gaitezke zurekin. Konbentzituko dugu -esan zion Atseginek.




Esan eta egin. Zuzendariarekin hitz egitera joan ziren. Hau harrituta geratu zen hasieran, baina entzun egin zituen eta dena ondo pentsatuta zutela ikusi zuen.

- Eskolak asko irabaziko luke -bukatu zuen Atseginek.
- Dena den, ezin dugu hori egin zuen familien baimenik gabe eta ez dute nahi izango -esan zien zuzendariak.
- Zergatik ez? -galdetu zion Indarrek.
- Hitz egin dezakegu beraiekin. Konbentzituko ditugu -esan zion Atseginek.



Esan eta egin. Familiekin bilera egiteko deialdia egin zuten. Hauek harrituta geratu ziren hasieran, baina entzun egin zituzten eta dena ondo pentsatuta zutela ikusi zuten.

- Auzoak asko irabaziko luke -bukatu zuen Atseginek.
- Dena den, ideia ona izan arren, hori ezin da egin -esan zien aita batek.
- Zergatik ez? -galdetu zion Indarrek.





- Lan asko egin behar da, txikiak zarete oraindik... Nola egingo duzue zuek bakarrik?
- Denon artean egin dezakegu -esan zien Atseginek.
- Handiak gara jadanik, egin dezakegu! -erantzun zien Indarrek.
- Irakasleok lagundu dezakegu -esan zuten zuzendariak eta tutoreak.
- Familiek lagundu dezakegu -esan zuten senide gehienek.

Esan eta egin. Hurrengo astean garbiketa lanak hasi zituzten guztion artean.

- Zenbat zabor dagoen! Zelako nazka! -esan zien tutoreak.
- Plastikoak hemen! -esan zuen batek.
- Eta bidrioa hemen, baina kontu handiz! -esan zuen beste batek.





Garbiketa bukatu zutenean, atontzen hasi ziren. Bakoitzak zerbait ekarri zuen bere etxetik: loreak, zakarrontziak, banketak, lanerako tresnak...

- Animo! Guztion artean egin dezakegu -esan zuen Atseginek.
- Horixe, zergatik ez? -esan zuen Indarrek.
- Nik egin dezaket! Eta nik! Eta nik! Eta nik!...
-esan zuten guztiek. Eta lanean hasi ziren.

Esan eta egin. Batzuk bidea egiten hasi ziren
eta beste batzuk loreak landatu zituzten.

- Zein ondo ari zarete jartzen -esan zien
Atseginek.
- Eskerrik asko -erantzun zion zuzendariak.





Beste batzuk, lurra prestatu eta belar hazia zabaldu zuten.

- Nik ureztatu dezaket egunero -esan zuen mutil batek.
- Ados, baina landareak ito gabe! - erantzun zioten.


Harriak sarrerako bidea egiteko eraman zituzten.

- Hauek dira azkenak -esan zuen Indarrek.
- Eskerrak! Nekatuta nago -erantzun zion gizonak.



Indar eta Atsegin bidea egiten ari ziren.

- Batzuk egurrekin eskultura bat egin nahi dute
-esan zion Atseginek.
- Zergatik ez? -erantzun zion Indarrek.





Esan eta egin. Egurrak pilatzen hasi ziren.



- Enbor hau zutik jarriko dugu -esan zuen neska batek.
- Eta kolorea emango diogu deigarriagoa egiteko -erantzun zion lagunak.



Indar beste enbor baten gainetik pasatzen ari zen.

- Ikusi ze ondo jolasteko! -esan zien lagunei.





Ikasle batzuk eskolako banku bat eraman zuten. Zuzendariak biltegitik atera eta konpontzera bidali zuena. Orain berria zirudien.

- Bukatzen dugunean festa bat egin beharko genuke -esan zuen mutil batek.
- Zergatik ez? -erantzun zuen beste mutilak.
- Horixe, denon artean egin dezakegu!
-bukatu zuen neskak.




Eskola ondoko parkea prest zegoen: bidea, mahaiak, jolasak, loreak, bankua... Denek asteburuko inaugurazio festa prestatu zuten.



Esan eta egin. Denak parkea zabaltzeko bildu ziren.

- Zelaiak beste leku bat dirudi -esan zuen tutoreak.
- Eskolak asko irabazi du -esan zuen zuzendaria.
- Auzoak asko irabazi du -esan zuten familiek.
- Guztion artean lortu dugu. Egin genezakeen! -esan zuen Atseginak.
- Zergatik ez? -erantzun zuen irribarrez Indarrek.





Eta, guztiok eskatuta, Indarrek eta Atseginek parkea zabaldu zuten.

- Arrazoia zenuen, guztiak konbentzitu eta parkea egin dugu -esan zion Indarrek.
- Zergatik ez? -esan zion Atseginek irribarrez.

Guztion artean ekarritako jakiak mahai gainean jarri eta festari hasiera eman zioten.

- On egin guztiei -esan zuen tutoreak.
- Topa eta osasuna! -esan zuen ama batek.





Parkeko bazter guztiak ezagutu eta probatu zituzten. Laster musika entzuten hasi zen.

- Dantzatu behar al duzu? -galdetu zion Indarrek zuzendariari.
- Zergatik ez? -erantzun zion zuzendariak irribarrez.



Esan eta egin. Neskak eta mutilak, gizonak eta emakumeak, guztiak dantzan aritu ziren eguna ilundu arte. Dantzan eta jolasean, eta kantuan, eta berriketan...

- Hau poza! -esan zuen aita batek.
- Nola ari diren handitzen! -esan zuen ama batek.



Eta festa amaitu eta eguna bukatzeko horrela
abestu zuten:

♪♪ Indartsu ta kementsu / da neska benetan,
trebea eta abila / mutila hitzetan,
taldea osatzen dute / biak proiektutan,
adore eta ideiak / uztartuz lanetan. ♪♪

